

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUNA

Aurrekontuak eta Kontabilitatea

2016ko ekitaldian kreditu-transferentzia bidez eta konpromisozko kreditua sortuz aurrekontu aldakuntzak egiteko dosierren behin betiko onespina

3/2004 Foru Arauan xedatutakoaren ildotik, eta ez denez 2016ko ekitaldian aurrekontu aldaketak egiteko dosierren hasierako onespinenaren kontra inongo erreklamazio edo oharpenik egin, behin betiko onetsita geratu dira ondoren adierazten diren aldaketak:

17 zk. duen dosierra, Arabako Merkataritza Ganbera Ofizialarekin hitzarmen bat sinatzeko kreditu transferentzia: enpresa txikiak laguntzeko, 30.900,00 euro kopurukoa.

18 zk. duen dosierra, EikenTalent Bekarako EIKEN KLUSTER elkarteari diru-laguntza emateko kreditu transferentzia, 1.000,00 euro kopurukoa.

19 zk. duen dosierra, IREFREA elkartearekin lankidetzaz-hitzarmena sinatzeko kreditu transferentzia, "prebentzio positiboa: familiak sarean" programa gauzatzeko, 5.000,00 euro kopurukoa.

20 zk. duen dosierra, Save the Children elkartearekin hitzarmena onartzeko kreditu transferentzia, AzokaTxikia programari jarraipena emateko, 25.000,00 euro kopurukoa.

27 zk. duen dosierra, GADEN elkartearekin hitzarmena onartzeko kreditu transferentzia, katu koloniak kudeatzeko, 30.000,00 euro kopurukoa.

2 COMPRO zk. duen dosierra, Argandoñako menpeko toki erakundea urbanizatzeko obra (1. fasea) finantzatzeko konpromisozko kreditua sortzeko 2017 ekitaldirako, 179.777,54 euro kopurukoa.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 22an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE